

NAFARROAKO HIRIBURUAREN IZENAREN GAINEAN

Patxi Salaberri Zaratiegi

Lan honek bi zati nagusi ditu: lehenik Nafarroako hiriburuak euskaraz idatzitako testuetan agertzen dituen aldaerak bildu nahi izan ditugu, toponimoen forma aztertzerakoan garrantzi handikoa baita azaltzen diren testuingurua, hots, erabiliak diren hizkuntza. Gero ahozko erabilerari lotu gatzazkio, Nafarroa Garaian barrena (batez ere) hiriburuari gaurregun euskaraz mintzatzerakoan ematen zaion izena eskualde ezberdinetan zein den jakin nahian. Honetarako argitaratuta zeuden lekukotasunez baliatu gara (EAEL eta EENEL-ez bereziki), bai eta guk erresuma zaharreko hainbat herritan bildu ditugun datuez ere. Eskerrak eman nahi genizkieke hemendik lantxo hau burutzen lagundu diguten informatzaile guztiei, bai eta halaber, gurekin arratsalde bana galtzeko ardurarik izan ez duten Iñaki Kamino (Aezkoa), Andrés Iñigo (Malerreka), eta Juan Joxe Zubiriri (Goizueta-Arano).

Lana ez da erabatekoa, alegia, anitez ere testu gehiago araka zitezkeen (1), eta anitez ere herri gehiagotan galdegin zitezkeen “Pamplona” nola erraten duten. Guk interesgarrien iruditu zaizkigun alderdietara baizik ez dugu jo.

1. Nafar hiriburuaren izena euskal testuetan

J. M.^a Satrustegik argitara eman dituen 1626ko bi testuetan aurkitzen dugu aurrenekoz nafar hiriburuaren izena. Testu hauetan Leitzako apeztegia lortu nahi zuten kandidatuen artean sortutako auziez mintzatzen da:

“Eta zerren eguin ditudan diligencia necessarioak **yrufiean** eta emen notifizazeco Letraoec verepersonan, eta ezin aurquitu dudan, eguitendut publicacio au eliza onetan...” (2).

(1) Honek ez du esan nahi lekukotasunak azaltzen diren liburuak besterik miatu ez dugula. Bildu ditugunak biltzeko aipatzen ez diren hainbat liburu erabili ditugu esku artean, emaitzarik erdietsi garbe, ordea.

(2) *Euskal testu zaharrak-I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 47.or. Bi testu labur dira. Bigarrena ez dago aipatu herri horretako euskaraz idatzia, eta ez du bokal-armonia (bokal-asimilazio mota bat da hau) deritzanaren aztarnarik aurkezten.

XVII. mendeko Joannes Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltceco liburua*-ren aitzinsolasean Tristand de Apehzte izenekoak honako bertso hauek zuzentzen dizkio egileari (3):

Laudorio bada handi Duçula Escaldunetz, laphurtarrez, bizcaitarrez
Baita Nafar **Iruñez**.

XVII. mendean Silvain Pouvreauk **Iruñe Pampelone** biltzen du (4).

K. Mitxelenak dioenez, Otxoa de Arinek **Iruñeko** ibiltzen du 1713an Donostian argitara emandako katiximan. Hauek dira Errenteriako irakaslearen hitzak:

“Halaber Ochoa de Arin gipuzkoarrak, «**Iruñeco** Obispadu»-az ari delarik, 153. or.: *Hostirala egunean, edo Laurembat egunean... Obispadu onetacoac Calaorraco Obispaduan jan daique escrupulo vague Laurenbat egunean, an permititcen dan aragua*” (5).

Joannes Etxeberri Sarakoak (1668-1749) honako lekukotasun hauek biltzen ditu:

“*Gaztella*, gaztellua, edo jauregui, eta gaztellutsua. **Iruñea**, hirurenea, hirurena, edo hiri enea;...” (6).

“...eta Nafartarren eremuetarican batçuec eta bertceac bere meneco, eta azpico, trebutari eta billau eraguin nahi içan cituen **Iruñea** Escualdunen hiri buruçagüia, murrailac vrraturic, eta aurthiquiric contra altcha etcequioen amoreagatic, bas-herritçat eguina vtci çuen.” (7).

“...itzultzen da **Iruñiera**, zeinaren murrailak, erreboltaturik alcha etzekion amoreakgatic, aurthiki baitzituen lurrerat,...” (8).

“Sarthu cen Naffarroaco eremuetan, eta setiatu çuen **Iruñea** Escualdunen hiri buruçagüia:...” (9).

“Bertce-alde Doña Catalina **Iruñeco** alaba, Naffarroaco Erreguina cenaz gueroztican, ezta dudaric hura-ere Escualduna cela,...” (10).

“...zeren mundu guztiak dakien bezala egundainotik **Iruñea** deithu, eta deitzen baita **Iruñea**, zeina, egiazki baita eskuarazko izena, eta hala hiri

(3) A. Irigarayk biltzen du bere “Nuevos testimonios de la lengua vasconica en Navarra”-n, *PV*, 80-81, 1960, 335-337.orr. Mitxelenak ere aipatzen du “Iruñea” artikuluan (EIG-VII, 115-123.orr.). Irakasle errenteriarren ustez ***Iruñeaz** ez azaltzea errimarekiko menpekotasunari zor zaio. Ikus “Hispánico antiguo y vasco”, *SHLV*, 99-108.orr.

(4) *Les Petites oeuvres basques*, Chalons-sur-Saône, 1892, 8.or. Autore honek ez du bokal-armoniarik aurkezten bere lanetan.

(5) EIG-VII, 97.or. Otxoa de Arinen hizkeran ez dago bokal-armoniarik.

(6) *Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes D'Etcheberri (1712)*, Paris, 1907, 4.or.

(7) Id., 29.or.

(8) Id., 34.or.

(9) Id.

(10) Id.

noble hura izatu da Eskual Herriko hiri buruzagia Celio Augustoren arauera...” (11)».

“...hargatik beraz egun arraçoïn du **Iruñeac** handirozqui loriatzeco, ceren den munduco bi monarchia handienen Ama...” (12).

1735ean argia ikusi zuen Fco. Elizalde nafarraren katiximaren lehen orrialdean hau dugu (13):

“**Iruñan**: Alfonso Burguete Alargunaren Echean”.

Oiartzunen sortu eta Nafarroan hainbat urtetan misiolari ibili zen Sebastián Mendiburuk (1708-1782) honela dio:

“Nere Religioco virtut-icasteac ere estudi guciac Gaztelerrian eguin eta igorri edo vidaldu nindu(t)en **Iruñeco** gure Colegiora ta bederatzi urtez bein...” (14).

“Libru hau an bucatu horduco izandu nuen **Iruñeco** colegio berera itzultzeco ta berriz an maisu izateco ordena” (15).

“Horduco nere eguitecoen ta urte orien buruan vidaldu ninduten beste eguiteco batez Madrilgo Cortera, ta nere eguiteco hau an eguin ta laster itzultzeco ustean **Iruñetic** atera banintzan ere, an lotu baten eran egondu nintzan urte ta erdiz” (16).

“Madrildic **Iruñera** ta urrengo amar urtez haritu nintzan misio ta Congregaci berriac eguiten ta zarrac eta berriac zaitzen...” (17).

“Azqueneco aldian Francesac **Iruñeco** erri sendoà inguratu tà artu zutenàn barrendic arquitzen cèn erri bereco gazteluan S. Ignacio,...” (18).

“**Iruñean**. Pedro Joseph Ezquerro libruguillearen echean Urte 1751” (19).

“**Iruñeco** Obispo jaunac eman du *berroquey* egun-eco, *Indulgencia*, edo barcacioa libru onetan iracurtcen del aldi oro” (20).

“**Iruñeco**, ta Españaco / Gazteluac cer dira? / munduaren lau Bazterrac, / onen Erresuma ederrac / daude zure contura” (21).

(11) Id.

(12) Id., 35 or.

(13) *Apezendaco dotrina christiana uscaras.*

(14) *Aita Sebastian Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Mensajero, Bilbo, 1982, lehen aleko 51. orrialdea. Ez dago bokal-armoniarik.

(15) Id., 52.or.

(16) Id.

(17) Id.

(18) Id., bigarren alea, 155.or.

(19) *Jesus-en bihotza-ren Devocioa-ren* inprenta-oina.

(20) Id., hitzaurreko 2.or.

(21) Id., 377.or.

“**Iruñeco** libru-guille Juan Antonio Castilla-ren echean” (22).

Idazle honentzat Iruñekoak **iruindarrak** dira:

“Artceco ceuden Francesac / **Iruin-darren** Erria: / orduan zu sarcen zara, / laster zoaz arm-etara, / ta arritzen da Francesa” (23).

Ezkabarteko Orrioko elizan aurkitutako 1750eko testu batean lekukotasun hauek ditugu (24):

“D. Gaspar Miranda eta Argaiz Jangoicoaren eta Aita Sanduaren graciatic **Iruñeco** Obispo gure Erregueren Consejucoac, etc.”.

“Eta baldiñetarian norbait contra etorcen baliz, publica dezatela escomitatzat eta bereis dezatela Elizaco Ofizioetatic, eta bacoitzac imiñi dezala Gure Edicto gau Elizaco liburuan, eta leitu eta publicadezela urteoro *irur Bazcoetan eta Errico festa buru egunean*, eta conveni, edo premia dela irudizayon Jai egunetan. **Iruñeco** Ciudadean Marchoaren amabigarren egunean, Milla zazpitan eun, berrogei eta amargarren urtean. Gaspar **Yruñeco** Obispoac”.

Baztango euskaraz idatzirikako urte bereko beste testu batean hau dugu (25):

“Don Gaspar de Miranda eta Argaiz, Iangoikoaren eta Sede Apostolikoaren graziaz **Iruñeko** Obispoa.”.

“**Iruñeko** ziudadean emana, martxoaren hamabigarren egunean, milla zazpitan eun eta berrogei eta hamarrean Gaspar, **Iruñeko** Obispoa, Obispo eta jaunak manaturik.”.

Juan Lorenzo Irigoyen eta Dutari Iruñeko Apezpikua zelarik (1768-1778) idatzi bertso batzuetan **Iruñako** edireten dugu:

“Don Juan Lorenzo Irigoyen ta Dutari **Iruñaco** Obispo Jaunac, concedituric dauque berrogei eguneco indulgencia, Euscarasco versu evec cantatzen duten guciendaco, ta aldioraco” (26).

(22) *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai*-ren inprenta-oina. Iruñea, 1760.

(23) *Jesus-en bihotza-ren Devocioa*, 377.or. Tolosan eginikako *Jesus-en bihotza-ren Devocioa*-ren 1882ko argitalpenean ere azaltzen da nafar hiriburuaren izena, hitzaurreko XIII. orrialdean: “**Iruñ-eco** Apezpicu Jaun Gaspar Miranda-c eman zituben era-berean, Bitoria-co Apaiznagusi On Mariano Miguel Gomez jaun tsit bicañ eta argidotarrac ere diñatu-da-orobat ematea bere elizbarruticentzat, berrogei-*eguneco* barcamenac, liburu ontan iracortzen-dan aldi bacoitzagatic”.

(24) J. M.^a Satrustegi, aip. lana, 80-81.orr. Testuan ez dago bokal-armoniarik.

(25) *Noticias y viejos textos de la “lingua navarrorum”*, A. Irigaray, Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, Donostia, 1971, 69-72.orr. Euskara Baztangoa da, baina ez dago bokal-armoniarik.

(26) Iraizozko Polikarpo A., “Versos euskéricos del siglo XVIII”, *FLV*, 22, 1976, 65.or. eta hurren.

Elkanoko Migelena etxean sortu eta bertan luzaroan apez egon zen Joaquín Lizarraga euskal idazlari nafarrak (1748-1835) honako lekukotasunak ditu bere lanetan:

Doctrina Christioa euscarás, Aita Gaspar Astete jesuitac erdarás decárran guisará guti gora berea, Iruñ-aldeán usatzendén mintza-éran (27).

“Icusidaiqua (sic) Palafox venerableac notatuzuén libruan, orr **Iruñean** Descalzaetán izanicáco Monjabáti, deitzenbaice francisca del Santissimo Sacramento...” (28).

“Au dá seguroágo, applicatzenbada bula arimendáco. **Iruñeco** Descalza errandugúnai aguercequizquióla arima ánitx...” (29).

Juan Bautista Agirre Asteasukoaren (1742-1823) obretan honako hau daukagu:

“**Iruñeco** gure apaiz nagusiaren baimenarequin” (30).

“Eta **Iruñeco** Obispaduan aguindua dago lenvicia: *Pazcoaco* ama bost egunac igarotzen diranean,...” (31).

“Irugarrena: Animen arzai bacoitzac *Corpus* eguneraco bidal ditzala **Iruñera**, edo bear dan lecura, Pazcoaco comunioa eguiñ ez duenen aguiriac” (32).

“**Iruñeco** Apaiz nagusiaren mendeco Elizetan, Apaiz nagusiac berac, edo onec escua ematen dionac bacarric barcatzen du...” (33).

“**Iruñeco** Apaiz nagusiaren mendeco lecuetan ez due becatu onen barca-cioa emateco escuric...” (34).

“Zure zabarqueriaz aurra itotzen bada, becatu chit andia da au, eta **Iruñeco** Apaiz nagusiac bacarric du onen barca-cioa emateco escua, buldaric ezpada” (35).

“Becatu itsusia da au, eta emen **Iruñeco** Apaiz nagusiari dagoca au barcatzeco escua (a) buldaric ezpadu becatariac... Becatu au barcatzeco escua **Iruñeco** Apaiz nagusiarena da emen (b)” (36).

(27) Argia ikusi ez duen idazlan baten titulua da. Juan Apececheak aipatzen du, autore horren *Doctrina christioarén catechima*-ren hitzaurrean.

(28) *Doctrina christioarén catechima*, PV-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979, 258.or. Joakin Lizarragaren hizkeran ez dago bokal-armoniarik.

(29) Id., 260.or.

(30) Tolosan 1850ean argitaratu zen *Eracusaldiac* lanaren bigarren orrialdea. Faksimilez emana, Lur, Donostia, 1978. Autore honen hizkeran ez dago bokal-armoniarik.

(31) Lehenengo liburua, 479.or.

(32) Id.

(33) Bigarren liburua, 64.or.

(34) Id., 68.or.

(35) Id., 81.or.

(36) Id., 80.or.

“Becatu au barcatzeco escua **Iruñeco** Apaiz nagusiarena da emen” (37).

“...eta **Iruñeco** Apaizpico, edo Nagusiaren mendeco Elizetan ez du becatu onen barcacioa emateco escuric, Apaiz nagusiac berac, edo arc onetarako escua ematen dionac baicic” (38).

Juan Inazio Iztuetak (Zaldibian sortua, 1767an) honela dio:

“Vizconde de Anay D. Ponce de Morentana edo Morentain Nafarroako Erondea edo Gobernadorea, bekaizturik, Gipuzkoatarrak artu ziotelako Gorritiko Gaztelua, naidartu edo resolbitu zuen kalte au mendekatzea, eta irten zan bere troparekin **Iruñetik** esan dan urteko agorrillaren 13an” (39).

Mitxelenak dioenez, autore honek 1848an argitara emandako *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*-n **Iruñetic**, **Iruñeco**, **Iruñean** eta **Iruñez** dugu (40).

Markinako Fray Bartolomé Santa Teresak (1768-1835) honela dio bere lanaren inprenta-oinean (41):

“**Iruñean**. Joaquín Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan”.

1811n Reille jeneral frantsesak zabaldutako bandoetan honako hau irakurtzen dugu (42):

“hedozein personac arrapazenduenac edo arraparasten-vadu edo hilcen vadu Guefe bandidoena Espoz eta Mina entregatuco zaizquio **Iruñeco** Zuidadeontan (sic) sey milla duro, agradecimendutaco edo precio-taco” [146].

“Eguina ene palacioan, **Iruñeco-hirian** Agostoaren-24 1811.—Nafarroco Generala eta Gobernadorea *Conde Reille*” [147].

“Eguina **Iruñe-co** Palacio-an Buru-illa, edo Septiembre-aren 25 de 1811”.

Aralarko Done Mikelen 1833an egindako prediku batzuetan ere azaltzen da nafar hiriburuaren izena (43):

(37) Id., 80-81.orr.

(38) Id., 436.or.

(39) *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Euskal editoreen elkarte, Oiartzun, 1990, 175.or. Autore honek ez du bokal-armoniarik.

(40) EIG-VII, 119.or.

(41) *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816, Faksimilez emana, Lur, Donostia, 1978. Autore honen hizkeran ez dago bokal-armoniarik.

(42) A. Irigarayk eman zuen ezagutzera, UGDEN-ko 145-149.orraldeetan. Idazki honetan ez dago bokal-armoniarik.

(43) Satrustegi, op. cit., 191.or. Euskaltzain nafarraren iritziz Sakaneko euskaraz idatzita daude, Arruazukoan, agian.

“...utciric bere Esposa nobedadiayen artian presentatucen Erroman J. C. Vicario, Elizaguciaren buru Aita Santu denbortan cena Juan 7. oiñetara, batzubec diyue lenbicio egon zala S. Marcial orduban **Yruñaco** Obispo denborartan cenarequi...”.

J. M. Hiribarrenek 1853an honela dio:

“Haren seme Iniguez etcen gutiago; / Moroac yarraraci aitaz urrunago; / Hekin eskuetaric athera **Iruña**, / Aise etsi zuten seguidaco miña” (44).

“Izatu Zaragozaan setio ematen; / Eskaldunec han arte deusic ez eguiten; / Guibelacoan zuen erre **Iruñea** / Eta asaldan eman menditar semea” (45).

“**Iruñerat** yoan cen Luisen harmada, / Deus gutitaric zuen beria enbuscada...” (46)”.

“hamabortz garren mende hamabian cela, / Nafarroa yarri cen Español bezala, / Alvarez eta Alba, bi duke aiphatu, / Fernandoren ordenaz **Iruñean** sarthu” (47).

“Lehen aitzindariac terreatzen ditu, / Ikhara etsaietan nahiz barriatu, / Adieraciz **Iruñan** eguilei holaco” (48).

“Nahiz ezden cecena Eskaldun yosteta, / Donestia, **Iruñan** menta handiz baita, / Erranen dugu nola guizon hain floch dena, / Cecenekin dabilan, eramanez gaina” (49).

Ihaurrietako D. Pedro José Samperrek Bonaparte printzeari igorritako gutun batean hau dugu:

“...zuauren Altezac señalatcen dadan / modoan eta conductotic nore obrarequin ejemplarebat **Iruñaco** Obispo Jaina- / ren ordenez...” (50).

Baztango Arizkunen sortu eta Nafarroa Behereko Irisarri herrian hazitako F. Laphitz euskal idazlariak (1832-1905) hurrengo lekukotasun hauek ditu, besteak beste:

“1521an, Maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da zaldidun bat **Iruñako** karriketan eta gobernadorearen etxean sartzen” (51).

(44) *Eskaldunac*, Hordago, Donostia, 1979, 54.or. Autore honen idazkietan ez dugu bokal-armoniarik edireten. Beste idazlan batean (*Eskaraz Eguia*, 1858) **Iruña** darabil. Iraizozko Polikarpok aipatzen du, “Nombre vasco de Pamplona...”-ko 433. orrialdean.

(45) Id., 57.or.

(46) Id., 63.or.

(47) Id., 71.or.

(48) Id., 161.or.

(49) Id., 219.or.

(50) “Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *PV*, 70-71, 1958, 165-166.

(51) *Bi saindu heskaldunen bizia*, Euskal Editoreen Elkarteak, Donostia, 1986, 40.or. Erakutsian dagoenez, autore honen lanean ez dago bokal-armoniarik.

“Orai beraz, iloba maitea, zuri nago, eta esperantza dut Naieran izan zarena izanen zarela **Iruñen**” (52).

“Iñaziok beldurra zuen bezala Frantses armada bozkariorekin hartu zuten Nafartarrek. Bide guzian ez zuten Frantsesek egitate onik baizik ukhan. Mendekoste bezperako **Iruñepean** ziren eta berheala setioan ezarri zuten hiria” (53).

“Nafarroako Gobernadorea ene oseba da. **Iruñe** bidean da zuen gudukazerat heldu” (54).

“Betbetan bihotza eskasten zaio berari... laztura batek hartzen du **Iruñeko** eta Naierako gerlaria...” (55).

“Loiolako seme gaztena da... erregeren gortheke lilia, Naierako hirian lehen sarthu dena, **Iruñen** hain lorioski erori dena...” (56).

“Iñazio maitea, jendek zer erran ere, ez zitezke hemen bakharrrik ibil. **Iruñeraino** edo Sangesaraino ethorriko gare zure lagun... Anaiek ekharri zuten **Iruñe** ondoraino. Han, anaier adioak eginik, eta urrenago ez ziten ethor otoizturik, bakharrrik sarthu zen **Iruñen** eta bere peko zaldia lehen jinari saldu. **Iruñetik**, oinez izan zen Zabiereko jauregian...” (57).

Vinsonek eta Aita Donostiak Saran 1881. eta 1921.ean bildutako kantetan **Iruñako** (58) du.

Marzelino Soroa (1848-1902) idazle donostiarrek honela dio berak egindako itzulpen batean:

“Baita ere **Iruña** edo Pamplonako Obispo beakurgarria errizale eta jakintsun D. Jose Oliver eta Hurtado jaun txit argidotarrak, eta Naparruako Diputaziyo txit geidiatiyak...” (59).

“Onela erantzuten dio **Iruña** edo Pamplonako egunoroko paper batek guk egun batzubenk dirala esaten gendubenari:...” (60).

“Naparruako Diputaziyoak azaldu zuben beste izkribu zabaltzeko argitaratu eder bat asmo berarekiñ, eta **Iruña** edo Pamplonako Obispo Jaun Irakasle On José Oliver eta Hurtado txit argidotarrak,...” (61).

(52) Id., 42.or.

(53) Id., 43.or.

(54) Id., 45.or.

(55) Id., 116.or.

(56) Id., 119.or.

(57) Id., 142.or.

(58) Iraizozko Polikarpok aipatzen du, “Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?” artikuluko 432. orrialdean. 1858.ko Heuty Nafarroa Beherearraren **Iruña, Iruñarrak** ere biltzen du.

(59) *Euskal Naparren Joaera edo Emigrazioa*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 139.or. Lan hau José Colá eta Goitiren *La Emigración Vasco-Navarra* izeneko obraren itzulpena da.

(60) Id., 147.or.

(61) Id., 152.or.

Txomin Agirrek (1865-1920) lekukotasun hauek ditu:

“Iesusen barri onak erakutsi zituan Done Paulo Ientientzat Bialduak, kristiandadeko lenengo urteetan; (1) Done Saturninok **Iruñan**, irugarren-go eunkidan; (2) Done Bizentek Dax-en (3)...” (62).

“Makiña bat bidar nabaitu ditut gizonik argi eta langillienak, arlo astunen erdian bertan, Azpeiti ortik eta Durango emetik, Donostin ondo ta **Iruñan** merke, olloa gora ta epera bera,...” (63).

Xabier Lizardi olerkari zarauztarrak 1930eko artikulu batean **Iruña**’n eta **Iruña**’koa (64) darabil, **Iruña**-z landara:

“Oñati’k eman zion sallari ezin-aaztuzko asibidea: Gernika, **Iruña**, Gasteiz yarraiz zaskio, lerdengi.”

1929-ko beste artikulu batean ere **Iruña** darabil:

“Gutxienik ogeitabost idazlek beizendutako idazkia: euskal-egunkari-astekarietan iru aldiz, ta Bilbao-Donosti-**Iruña**-Gasteiz’ko erdel-egunkari banatan, bederik, bein agertua?” (65).

Fermin Irigarai “Larreko” (1869-1949) idazle auriztarraren lanetan honako lekukotasun hauek ditugu, besteak beste:

“**Iruña**, hiri untako jaun aundi batzu, Campion, euskeltzale omentsua buru dutela,...” (66).

“«*Euskal-jai*»en Irigoyen iragan igandean **Iruñen**, jai andia ginuen, **Iruñeko** zaindari Jondone Zernin, emengo leen ipispikua,...” (67).

“**Iruñe** untan ere, euskararen alde, zerbeit ari dire” (68).

“Astelen goizean Donostitik eldu ziren bi lagun beribil batean; eta **Iruñe** ondoan,...” (69).

“Lauak eldu ziren **Iruñera** eta emen sartzean gelditu zuten beribila eta ...” (70).

“Ukarzaña (artere cubitale) ebaki zion eta odol ixurtze andia izan zuen, **Iruñako** eritegira eldu bizkitartean” (71).

(62) *Auñamendiko lorea*, Auñamendi, Donostia, 1966, 150.or.

(63) *Garoa*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 1966, 288-289.or.

(64) *Hitz-lauz*, Edili, Donostia, 1972, 108, 110, eta 115.or.

(65) *Kazetari-lanak*, Erein, Donostia, 1987, 220.or. Gaztelaniaz ere noiz edo noiz **Iruña** ibiltzen du: “Acaba de celebrarse en **Iruña** con motivo de las fiestas de San Fermin...” (120.or.).

(66) *Nafarroatik*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1992, 1.or. Autore honen lanetan ez dugu bokal-armoniarik edireten.

(67) Id., 9.or.

(68) Id., 11.or.

(69) Id., 21.or.

(70) Id., 25.or.

(71) Id., 45.or.

“Beinere ez nituen sinetsiko **Iruñan** egin diren astokeriak eta emengo karriketako oiua,...” (72).

“Madridko *El Debate* lege zarraren aitz mintzatu delakoz, **Iruñean** ere, egunkariak barne, gaizki artu dute tradizionalistak ere bai!” (73).

“Alkate jauna **Iruñetik** atera zen, bizpairur eguntako;...” (74).

“Nere zarzaroan **Iruñaratua**, leen aldiz aurten ikusi ditut emengo jaiak” (75).

“Berriz Naparrako Etxenagusiko gizonak galdetu diete erri guziera, bialtzeko **Iruñarat** eken ordezkokoak, eldu den asteleneko Batzarrerat” (76).

Larrekoen arabera Iruñekoak **iruñarrak** dira:

“Aita Olangua, **iruñar** jesuita; misiolari Chinan egona, Bilbaon il da. Jainkoa baitan bego.” (77).

“Manolo Iribarren **iruñar** gaztea, ipui andi baten egilea «Teatro Español» delakoan biziari diote *La otra Eva* idatzi duen gutuna” (78).

“Hots **iruñarra** izanagatik hitz dautzuet ez dela doixtarra (alamanen kidekoa)” (79).

Buenos Airesetan jaio eta Lapurdiko Lekornen hazitako Jean Etchepare medikuak honako lekukotasun hauek ditu, besteak beste:

“Egia othe da Charlemagne adostua zintutela lehentxago Moroekin? adixkidantzaz emana zuela Moroer, Zaragozarekin, Aragoniako bazterra? Moroak alderat koka zitezin Eskualerrian, Charlemagnek zuela urrazia **Iruñako** hiria zaintzen zuen harresi gora?” (80).

“Merkaturik ez balu, **Iruñatik** ez balitzaizko iragaiten egun guziez beribilak, Zaraitzu eta Erronkari, Ziberoako alderdirat goititzen diren bi eskualdun erreketako herrietarat, Agoitze ez litake berez-bere gauza handirik” (81).

“**Iruña!** **Iruña!**... Lehengo errege Nabarrekoen hiria huna nun dugun berehala begien aitzinean...[...] Sartzten gira **Iruñan** patar ezti bati goiti, kazerna berriak diren hegitik” (82).

(72) *Lekukotasuna*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1992, 8.or.

(73) *Nafarroatik*, 128.or.

(74) Id., 141.or.

(75) *Lekukotasuna*, 7.or.

(76) Id., 62.or.

(77) *Nafarroatik*, 142.or.

(78) Id., 189.or.

(79) *Lekukotasuna*, 113.or.

(80) *Beribitez*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1987, 48.or.

(81) Id., 55.or.

(82) Id., 58.or.

“Oroitz zirezte leheña egin zutela Oñatin, duela lau urte eta bigarrena duela bi urte **Iruñen**” (83).

“Gernikako hiria ttipiegi da eta bazterregi holako erakusketa batzuen-tzat. Donostian, Bilbaon, **Iruñen** hobeki eman lezakete” (84).

“Atsegin handia ukan dugu telegrafaz Espainiako haurridetarik hanitzek igorri agurrez: baziren *Elgoibar*-tik, *Bergara*-tik, **Iruñe**-tik, *Madrile*-tik, bertzeak bertze” (85).

“Lehengo obra edo idazkun zahar gehienak, edozoin izan diten, badau-delarik orai artio bezala *Baionan*, *Iruñen*, *Bilbaon*” (86).

“Azkenik mintzo zauku *Huici* apezak 1899-an, *Iruñen*, ager-arazi «*Manual de Gramática vascongada*» delakoaz.” (87).

“Ez dugu ere xehetasun den gutienik haren apezgorako urratsez. **Iruñen** eman zuenez bere lehen meza, ala *Baionan*, ezin jakin dugu.” (88).

“Mendien bi alderdiak bazauzkan: haraindian hedatzen zen **Iruñetik** beherago;...” (89).

Enrike Zubiri «Manezaundi» (1867-1943) idazlari eta pintore luzai-dearrak beti **Iruñe** ibiltzen du. Bere artikuluen artean (90) “**Iruñeko** itzulia”, “**Iruñe** zahar eta berri”, “**Iruñetik**”, eta “**Iruñeko** berriak” izene-koak aipa daitezke. Aurkitzen ditugun beste lekukotasun batzuk hauek dira:

“**Iruñerat** heltzean haren igurikan zagon hemen bizi den herritar bat, eta eremaiten du Battitta soldadotegirat,...” (91).

“...biharamunetik aitzina eremaiten ditu **Iruñe** bazterretako sorhopil zabal bathetarat eta denak ibilarazten lerro luzian,...” (92).

“Bazter guzietan badakite zer aiphu haundia dien Ortzirale Sainduz **Iruñen** egiten den prosesoina” (93).

“Duela hogoi urthe **Iruñeko** hiriak hogoita hamar mila arima zituen” (94).

(83) *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. (I Euskal gaiak)*, Elkar, Donostia, 1984, 51.or. Autore honen hizkeran ez dago bokal-armoniaren aztarnarik.

(84) Id., 53.or.

(85) Id., 124.or.

(86) Id., 200.or.

(87) Id., 212.or.

(88) Id., 236.or.

(89) Id., 340.or.

(90) *Artikulu bilduma*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1990. Idazle honen hizkeran ez dago bokal-armoniariarik.

(91) “Battittaren soldadogoa”, op. cit., 37.or.

(92) Id., 38.or.

(93) “Ehortze saindua”, op. cit., 59.or.

(94) “Yende arrotza”, op. cit., 223.or.

Autore honen arabera Iruñekoak **Iruñarrak** dira:

“Eta Naparroan, hain eskuara ederra izanik ere, **Iruñarrak** ari dira gipuzkoarraren ikasten!” (95).

“Ba... bainan **Iruñarrak** gipuzkoarra ikhasten, eta nahiz, goitiago erraten dugun bezala, erdia ere ez dugun ulertzen...” (96).

R. M.^a Azkuek **Iruña** darabil:

“Igaz irureun urte argitaratu zan **Iruñan** liburu eder bat...” (97).

Nicolás Ormaetxea “Orixe”-k (1888-1961) honako lekukotasun hauek ditu:

“Agertu bat aurrena Irutasunari; / urrena, Gudari dun Goi-ingeruari; / Meza-aurreti, inguruan ba dute ekuskari; / Aralar’ez arontza Sakana da ageri, / Ziordi’ti **Iruña’ra** makiñabat erri” (98).

“**Iruña’k** ez nai; ez Naparroa’k / negar-egunik igaro, / zedila aientzat, eskatu zuten, / zigor ua biguiñago...” (99).

“Gezurra. Txango artan ikusi nenunan Martzillako azukreola geldi. Erriberan lanik ez... Orregatik eskeñi zienean Cubatar ezpain-aundi arek - arek sortuazi baitzun guda **Iruñako** emakume aundi katolikuekin- ...” (100).

“Orduntxe **Iruñako** Apezpikuak: «Ez ixuri aurrera errugabeen odolik!› Itsuskeri orrek oso beltzaturik utzi yun Naparroa” (101).

“San Cristobalen nengonan, **Iruñan**” (102).

“Españian bi uririk lizunenak bai al dakin zeintzuk esaten zituten? **Iruña** ta Salamanka, Buruxkila zegoanekoa. Naparroa gudak gaiztoago egin yun Errepublikak baño” (103).

Nafarroako hiriburuaren izenaren inguruko lan interesgarri baten egilea den Iraizozko Polikarpo idazle nafarrak (104) **Iruñeko**, **Iruñan** eta **Iruñean** darabiltza testu ber batean:

(95) “Zuberoko eskuara”, op. cit., 259.or.

(96) Id., 260.or.

(97) J. de Urquijok aipatzen du, “Los Refranes y sentencias de Sauguis”-en hitzaurrean, *RIEV*, 2, 1908, 677-724.orr.

(98) *Euskaldunak*, Añamendi, Donostia, 1976, 222.or.

(99) Id., 226.or.

(100) *Quito-n arrebarekin*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1987, 83.or.

(101) Id., 85.or.

(102) Id., 87.or.

(103) Id., 89.or.

(104) “Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?”, *FLV*, 12, 1980, 427-434.orr.

“Goizik apez izateko gogoia sumaturik, **Iruñeko** Seminarioan asi zituen ortarako ikasketak 1900ean” (105).

“Ordutik aurrera **Iruñe-ko** komentuan egon zen egotez 1935-eraño” (106).

“Mateo Mujika, **Iruñeko** Gotzai izan zenak agindu-ta, Kristau- Ikasbide berria argitara eman zuen” (107).

“Eusko-Ikaskuntzak **Iruñan** urte ortan egin zuen batzarre aldi Nagusian, Euskaltzaindia ere antxe zan bere batzarraldiak egiten” (108).

“Orduan sortu zuen **Iruñean** «Euskeraren Adixkideak», deitu zuen Lagunartea.” (109).

Halarik ere, autore beraren 1934eko *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia*-ren inprenta-oinean **Iruña'ko** edireten dugu:

“Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan / **Iruña'ko** Kaputxinoetan.—1934”.

Damaso Inzak **Iruñean** eta **Iruñeko** darabil, hots, gaurregun **Iruñean** eta **Iruñeko** idatziko genukeena, ziurrenik:

“Ienengoa, «Refranes y Sentencias» deritzana, **Iruñean** argitaratu zen 1596-garren urtean” (110).

“**Iruñeko** «Príncipe de Viana»-n Naparroako batzu agertu ziren” (111).

“Mezkiritz-en Perpetua Saragueta, oraiño **Iruñean** bizi zaigun andre buru-argi ta euskaltzale bikaña” (112).

Idazle eta euskaltzaina izan zen Piarres Lafittek (Luhuso, Lapurdi, 1901, Larresoro, 1985) behin gutxienez **Iruñen** darabil:

“*Gure Herrian* ager-arazi zuen ere lehenik *Beribilez*, liburu gozo bezain ederra. Eskual-herrian egin itzuliño bat aiphatzen dauku xehe-xehea: Kanbotik abia, Garazin eta **Iruñen** gaindi iragan, Loiola ikus, Donostia eta Donibane-Lohizunen barna itzul berriz ere Kanborat” (113).

Aingeru Irigarayk Oskotzen bildu zuen Aralarko Done Mikel eta Goñiko Teodosioren elezaharraren aldaeran **Iruñera** dugu:

(105) Damaso Inzaren *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak* lanaren aitzinsolasa, PV, Iruña, 1974, 9.or. Ez dago bokal-armoniarik.

(106) Id.

(107) Id.

(108) Id.

(109) Id.

(110) Id., 11.or.

(111) Id.

(112) Id., 12.or.

(113) *Euskal literaturaz*, Euskal Editoreen Elkarte, Oiartzun, 1990, 282-283.orr. Ez dago bokal-armoniarik.

“Goñi-ko zaldune **Iruñera** doaie, obispoarekin kofesatzera;...” (114).

Lan berean ageri den Ezkarozeko erromantze batean honako lekuko hauek ditugu:

“Pedro Carlos Mendi, aur gazte / ogei ta bi urte, / hirugarrena bete gabe / **Iruñara** preso daramate. // **Iruñeko** kartzela / Nafarroan den handiena /...” (115).

Koldo Mitxelena hizkuntzalaria izan zen aldaera batutzat **Iruñea** (- a) aurrenekoz proposatu zuena (116), eta horrela azaldu zen Akademiaren 1979ko *Izendegian*, **iruindar**, **iruinxeme** ‘Iruñeko’- ren aldamenean (117). Mitxelenak euskarazko bere lanetan **Iruñea**, **Iruñetik**, **Iruñera**, **Iruñeko**, **Iruñeak** (118) ... ibiltzen ditu. Mustra gisa “Iruñea” eta “Iruñetik” (119) artikuluez gainera honako hauek aipa daitezke:

“Euskal radioaz ari bagara, Segura dugu gaur euskaldunen hiri buruzagia, lehen **Iruñea** bezala” (120).

“Gogoan eduki behar da, gainera, badirela argitara gabe dauden euskal obretan zenbait ale bakan eta bitxi (Ulibarriren gutunak eta **Iruñean** dagoen *Doctrina para la instrucción de la familia de casa en vascuence* luzea datozkit gogora),...” (121).

“Guztiok ezagutzen dugu **Iruñeko** ibilbide zabal batean Foruei edo Lege zaharrei eraiki zieten oroigarri ederra” (122).

2. Nafar hiruburuaren izena egungo euskaran:

Damaso Inzak *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*-en lekukotasun hauek biltzen ditu:

“Arre arre pottotto! / bier **Iruñerako** / etzi Tolosarako / Andik zer ekarriko? / xapata ta gerriko, / saski bat bete koko / t’oriek norendako / gure Iñaxiandako” (Uharte-Arakil) (123).

(114) *Noticias...*, 47.or.

(115) *Id.*, 85.or.

(116) Ovidoko *Archivum*-en (8, 1958). Argia berriz SHLV-n (99-106.orr.) ikusi zuen. Beranduago “Iruñea” artikuluan esandakoak baieztatu zituen (*Piarres Lafitteri Omenaldia*. Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 445-457). Lan hau PT-en (187-193.orr.), eta EIG-VII-n (115-123.orr.) eman zen berriz ere argitara.

(117) *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1979, 41.or.

(118) 50. hamarkadako lanetan zenbaitetan -ñ- ren ordeze -in- dugu, baina hau kontu grafiko hutsa da.

(119) EIG-I, 115-120.orr.

(120) *Id.*, 99.or.

(121) *Id.*, 234.or.

(122) *Id.*, 243.or.

(123) 20.or. Uharteko hizkeran bokal-armonia bada.

«**Iruñe(a)n** baño Irunberrin kontu geiago» (Larraun) (124).

«**Iruñen** zer berri?» galdetu omen zuen errege Karlos V'garrenak. Bes-teak erantzun: «**Iruñen** gari asko». Eta erregek berriz: «Gari asko, gari asko? Bat ere ez neretako» (Ultzama) (125).

EAEL-k Gipuzkoako Elduainen hurrengo lekukotasun hauek biltzen ditu:

«Aizú, árek, gutxi-goraberá...**Iruñea**, irú ordu esate zuén...».

«...ta géro, géro usté't zuzènian **Iruñe**ño jute zála. Ní an, **Iruñean**, gutxítan jun izándu naiz (...), mutíl-koxkorra, ttíki- ttíkíe...».

«...òla bíre motxían ez; eméndik Ollokiá ta óla ez. Oi **Iruñea** arté bai... kéak ítte zun...».

«Da, Ollókin, elúrra áundiya zan batían, merkántzia **Iruñetik** etorri, taeméndik biájeroana... **Iruñea** jun biár (t)zun.».

«Da jíratzeko-re...buélta, mákinai ematekó, Léitzen, da Andoañén...da **Iruñean** e bai.».

«...Bí kotxé, ta bí bagóí, merkántziakuá o... gáuzak, **Iruñeako**» (126).

Bortzirietan EENEL-ek **Iruñetiká** biltzen du Lesakan, **Iruñetik** Arantzán, **Iruñetik** Etxalarren, eta **Iruñetik** Beran (127). Guk Etxalarren lehen informatzailearen ahotik **Iruñe** [irúne] edo **Iruñi** (128), **Iruñetik**, **Iruñerà**, **Iruñin**, **Iruñekuà**, **Iruñekù:k** 'Iruñekoak' bildu dugu (129), eta bigarrenaren ahotik (130) **Iruñe**, **Iruñen**, **Iruñetik**, **Iruñerà**, **Iruñekuà**. Lesakan **Iruñea** [irunea], **Iruñetik**, **Iruñerà** [irúnerà], **Iruñean**, **Iruñekuà** dugu (131), eta Beran **Iruñià** edo **Iruña**, **Iruñatik**, **Iruñaràt**, **Iruñean** [irúneàn], **Iruñakoà** edo **Iruñeko** (denean) (132).

(124) 42.or. Ez dakigu zein herritan bildu zen. Larraungo herri batzuetan bederen bokal-armonia badago (ikus EENEL). EAEL-n Alliko datuetan batzuetan (gutxienetan) armonia bokalikoa bada, baina beste batzuetan (gehienetan) ez. Halaz ere, herri bereko etnotestuan (EAEL-II, 166-167 zkiak.) gertakari fonetiko hori garbi ageri da.

(125) 121.or.

(126) 108. etnotestua.

(127) 322.or., 252. zkia. Herri hauetan ez dago bokal-armoniarik.

(128) Bukaerako -i hori ez da inolaz ere i garbi bat; e eta i-ren arteko soinu bat da.

(129) Etxalarren 1926an sortu eta aspaldi honetan (azken berrogei urteotan) Lesakan bizi den Gregoria Galtzagorri (1926) izan da gure informatzailea. Ez dago bokal-armoniarik.

(130) Virginia Arburua Miuraren ahotik (1938).

(131) Ez dugu uste datuok osotara fidagarriak direnik. Gure informatzailea Santiago Aiestaran (1935) izan da. Ez dago bokal-armoniarik.

(132) M.^a Jose Errandonea (1946) izan da gure informatzailea. Datuok ez dira fidagarriak gure irudiz. Ez dago bokal-armoniarik.

Basaburu Txikian EENEL-ek **Irúñetik** biltzen du Areso eta Eratsunen, eta **Irúñetik** Beintza-Labaienen. Leitzan **Irúñe** edo **iruñè**, **Irúñtik** edo **Irúñetik**, **Irúñea** edo **Irúñea** 'Iruñera, **Irúñen**, **Irúñeko**, **Irúñekoak**, **iruñdarak**, **Irúñerriè**, **Irúñerrin** bildu genituen (133), Aranon **Pamplona** erraten dute eskuarki (134), nahiz azken aldi honetan **Irúña** sartzen hasia den, eta Goizuetan ere beste horrenbeste gertatzen da (135).

Malerrekan EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Ituren eta Sunbillan. Elgorriagan guk **Irúñe** eta **Irúña** (136), **Irúñaà** 'Iruñera', **Irúñetik** eta **Irúñtik**, **Irúñen** eta **Irúñin**, **Irúñeko** (bidia), **Irúñekuù** 'Iruñekoa' eta **Irúñekuà** (137) bildu ditugu, Iturenen **Iruñea** [iruñeà] (138) edo **Irúñià**, **Irúñiàn**, **Irúñetik** edo **Irúñtik**, **Irúñerà** edo **Irúñirà**, eta **Irúñekuà(k)**, eta Zubietan **Irúñea** (139), **Irúñetik** (140), **Irúñaà** 'Iruñera', **Irúñeainò** [iruñeaino], **Irúñean** (141) eta **Irúñekuà** (142).

Bertizaranan EENEL-ek **Iruñatik** biltzen du Narbarten.

Baztanen EENEL-ek **Iruñetik** ematen du Almandoz, Arizkun eta Amaiurrerako, **Irúñetik** Zigarako (143). Urdazubirako lan horrek **Irúñetik** ematen du, eta Zugarramurdirako **Iruñetik**. Guk Arizkunen **Irúñe**, **Irúñen** eta **Irúñetik** (144) bildu ditugu, Lekarozen **Irúñea** edo **Irúñe**, **Irúñetik**,

(133) F. Olano eta Narciso Sestorain izan ziren gure informatzaileak. Lehenak hirurogeita hamar bat urte zituen 1988an, eta bigarrenak lauogei inguru.

(134) Gure informatzailea Ester Legarreta (45 bat urte ditu) izan da. Goizuetako datuak Jesus Etxegia (1933) eta Fermin Zubirirengandik (1920) bildu ditugu.

(135) Gure informatzailea Fermin Zubiri izan da. EENEL-ek **etórrì dé pamplónatikán** ematen du, baina ez dirudi **dé** 'da' Goizuetako forma denik, bertan bokal-armoniarik egiten ez delako. Areso eta Leitzan berriz present dago gertakari fonetiko hori, baina ez Beintza-Labaienen (EENEL-en bildutako datuen arabera).

(136) Severiano Urroz Saldias (1914) izan da gure informatzailea. Lehen aldaera solasean ari zelarik isuri zitzaion; bigarrena berriz "Pamplona" euskaraz nola erraten zuen galdeginik eman zigun. Ez dago bokal-armoniarik.

(137) Hemen jatorrena, bapatekoena **Irúñekuù** dela egingo genuke.

(138) **Oso e itxia** da, i-tik hurbil dagoena. Gure informatzaileak Iturenen sortua den Andres Iñigo (1945) eta beronen ama den Natividad Ariztegi Ziganda (1905) izan dira. Azken hau sortzez Oizkoa da, baina gaztetan Iturena ezkondu eta geroztik bertan bizi izan da. Ez dago alderik bataren eta bestearen ebakeren artean. Ez dago bokal-armoniarik. Natividadek gure «nola errain zinuke "pamplonés"» galderari **irúñesa** erantzun zion, baina ez dugu uste hau une hartan bururatu zitzaion izenezaz besterik deus denik.

(139) Fco. Juanikorena Mutuberria (1914) izan da gure informatzailea. Izen honek atzean beste elementuren bat duenean **-a** galtzen du: **Irúñe hurbil hortako'úk** 'Iruñe hurbil ('inguru') horretakoa duk'. Ez dago bokal-armoniarik.

(140) Hizkera azkarrean erdiko **-e-** hori ia ez da aditzen.

(141) Tarteko **-a-** hori oso laburra da, eta ez da garbi aditzen.

(142) **Irúndarrà** Irungoa da hemen, Irunen sortua.

(143) Herri guztiotan bokal-armonia bada.

(144) Gure informatzailea Iriberria baserriko Norberto Iribarren (lauogei urte oraindik ez ditu) izan da.

Iruñera, Iruñen, Iruñekoà (145), eta Urdazubin **Iruñea, Iruñea** edo **Iruñia, Iruñetik, Iruñera, Iruñean, Iruñekoà** (146).

Araitzen EENEL-ek **Iruñatik** biltzen du Azkaraten. Guri Gaintzan **Iruñea** 'Iruñea' eta 'Iruñera', **Iruñeti**, eta **Iruñean** (147) eman zizkiguten, eta Betelun **iruñè, Iruñe, Iruñea** 'Iruñera', eta **Iruñeti** (148).

Larraunen EAEL-k **Iruñeti** biltzen du Allin:

"...sóro (b)át eo... dána dá lézii... de jénde ásko etörtzén da é? **Iruñeti** eta... ta sórgiñék émen tzabiltzén gaubeti" (149).

Ibar honetatik atera gabe, EENEL-ek **Iruñetik** du bildua Uitzin, **Iruñetik** Etxarrin, Oderitzen, eta Baraibarren, eta **iruñetik** Albiasun. Guk Oderitzen **iruñè, Iruñe, Iruñeko** (Kokoa), eta **Iruñetik** (150) bildu genituen.

Burundan EENEL-ek **iruñati** biltzen du Bakaikun. K. Izagirrek **Iruñeti** (**gatozi**) ematen du Altsasurako (151).

Ergoienean EENEL-ek **Iruñétig** [irunétiy] biltzen du Unanun "Iruñétig lleátu ók" testuinguruan. Guri Lizarragan **iruñà, Iruñeti, Iruñekuà, Iruñaa** 'Iruñera', **iruñèn, Iruñerriyà** eta **Iruñerriyè** (152) eman ziguten.

Aranatzen EAEL-k **Iruñen** biltzen du Arruazun:

"órduen etzeón ba, órduen etzeón e lán-tokiik inñun e! etzeón fabri-keik... émen éz béintzet! **Iruñen** te eóngo zién zerbáit baño gutxí an e" (153).

Etxarri-Aranatzen **Iruñaa** 'Iruñera', **Iruñaaño** 'Iruñeraino' eta **irunxeme** ditugu (154). EENEL-ek **Iruñatik** biltzen du Lakuntzan; guri **Iruña, Iruñan, Iruñaa, Iruñati** eman ziguten (155).

(145) Graciosa Miura Ezkurrengandik jasotako datuak. Lekarozko Etxebertzeko bordan sortu zen 1907an, eta aspaldidanik Etxalarren bizi da. Ez dirudí hasierako **Iruñea** hori berak normalean ibiltzen duen aldaera denik.

(146) Gure informatzailea Juan Agirre (1914) izan da. Hau "hiztun ikasi"-tzat jo dezakegu, eta beraz datuok baieztakizun (edo ezeztakizun, jakina) gelditzen dira. Ez bide dago bokal-armoniarik.

(147) Mikaela Otamendirengandik (60 bat urte zituen 1988an) bildu genituen datuok. Bokal-armonia bada.

(148) Santos Zubillaga (90 urtetik goiti 1988an) eta semea (60 bat urte) izan ziren gure informatzaileak. Bokal-armonia bada.

(149) EAEL, 167. etnotestua. Badago bokal-armonia.

(150) Juan Aldaiaren ahotik (40 urteak ongi beteak zituen 1988an). Herri guzti haue-tan bokal-armonia badago.

(151) "Altsasuko euskeraren gai batzuk", *ASJU*, 1967, 45-97.orr. Bokal-armonia bada.

(152) Dolores Navarro (laurogei urte inguru zituen 1988an) izan zen gure informa-tzailea. Bokal-armonia bada.

(153) EAEL, 168. etnotestua. Bokal-armonia bada.

(154) *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Karasatorre eta beste, Tafalla, 1991, 28 eta 86.or. Bokal-armonia bada.

(155) Eugenio Ulayarren ahotik (70 bat urte izanen ditu orain) jaso genituen. Ez dakigu datuok zeharo fidagarriak direnik.

Arakilen **Iruñe**, **Iruñen**, **irúndarrák**, **irúñdarrák** edo **iruñdarrák**, **Iruñerriè**, **irúñerritarrák**, **Iruñea** 'Iruñera', **Iruñetik**, **Iruñan** 'Iruñaren' (ondoko yendia), **Iruñinguruè** ditugu Urritzolan (156), eta **Iruñé**, **Iruñaà** 'Iruñera', **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñerriè** Irañetan (157).

Atetzen EENEL-ek **Iruñetik** biltzen du Aroztegin, **Iruñeti** Beratsainen, eta **Iruñetik** (158) Beuntzan. Guk azken herri honetan **Iruñe** edo **Iruñè**, **Iruñen** edo **Iruñèn**, **Iruñerà**, **Iruñetik** edo **Iruñetik**, **Iruñekoàk**, **iruñtarrák**, **iruñdarrák**, **iruñdarrák** edo **iruñdarrák**, **Iruñerriè**, **Iruñerrièn**, eta **irúñerritarrák** (159) bildu ditugu, eta Egillorren **Iruña**, **Iruñarà**, **Iruñ(e)an** edo **Iruñen** eta **Iruñekoà** (160).

Gulibarko Zian **Iruñe** eta **Iruñé** (161) dugu.

Basaburu Nagusian **Iruñetik** dugu Itsason, eta **iruñetik** Berueten EENEL-en arabera (162). Herri honetan **irúñii** 'Iruñea', **Iruñiin** 'Iruñean', **Iruñea** 'Iruñera', **Iruñetèk** 'Iruñetik', eta **Iruñekoà** bildu ditugu guk (163), Udaben **iruñi** edo **iruñi** 'Iruñea', **Iruñin** 'Iruñean' (164), **Iruñetik** edo **Iruñtik**, **iruña** 'Iruñera', eta **Iruñekoà** eman ziguten. Herri honetan Iruñekoak **irúndarrák** dira (165). Beramendin **irúñè**, **Iruñaà**, **Iruñetik**, **iruñan** (**iruñen** ere bai?) **Iruñekuà**, **iruñdarrák**, **Iruñerri**, **Iruñaldeà** 'Iruñe aldera', **Iruñen** 'Iruñearen' (bueltan) (166) dugu, eta Ihabenen **Iruña**, **Iruñaà** 'Iruñera', **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñekua**, **iruñdarrà** (167).

Imozko Latasan EAEL-k honako lekukotasun hauek biltzen ditu:

"**Iruñetik** zèa zún, zún paráda Saásan e; geó, emèn apéaderoá déitzen zióna;...".

(156) Bautista Etxarrenengandik (90 urte inguru ditu) jasotako datuak. Bokal-armonia bada.

(157) Miguel Esainek (hirurogei urteak ongi beteak zituen 1988an) emandako datuak. Armonia bokalikoa bada.

(158) Azken soinua ez bide da oso argia.

(159) Miguel Ezkurra eta Enrique Nazabal (biak 65 urte ingurukoak, 1988an) izan ziren gure informatzaileak.

(160) Jose Oiartzunengandik (1933) bildutako datuak. Informatzaile honek ez du ongi menperatzen hizkuntza.

(161) Hipólito Goñi (laurogei urte inguru zituen 1988an) izan zen gure informatzailea. Itxuraz, bokal-armonia bada.

(162) Bokal-armonia badago.

(163) Manuel Rekondo (1922) izan da gure informatzailea.

(164) **Iruñii**, **iruñi** edo **iruñi** eta **Iruñiin**, **Iruñin** formen azpian ***Iruñea** eta ***Iruñean** ditugu: cf. **èsnii**, **èseni** 'esnea' (**begii**, **begi** 'begia' bezala), **bèlaunin** 'belañean' (**bègin** 'begian' bezala)..., baina **zenbat es(e)ne?**.

(165) Antonio Nuinengandik (65 bat urte ditu) bildutako datuak.

(166) Miguel Goñirengandik (50 bat urte ditu) jaso ditugu datu hauek.

(167) Juan Senosiainek (1930) eman dizkigu datuak. Bokal-armonia badago. **Iruña**-ren jatorriasunaz duda asko ditugu.

“Ta Mércantziik, ba onák, **Iruñeko** kuàrtelak é, dának, Látásako kántera-tík árziute(n), dának, ...”.

“orréa... eméndik béte, onéañó ez, túnelik... **Iruñetik** oneráño”.

“Ni? Donóstiraño ere báí, ta **Iruña** (‘Iruñera’) e báí... báí”.

...udábideán, **iruñetik** etortzen tzeén, espéziala jarrita Latasáño,...”.

“...éun únea pàsten tzutén ta geó, atsaldeán, buélta béis **Iruñea**”.

“Bai! oi! kántera primérakoa...! ói... andik, **Iruñ(e)a** (‘Iruñera’) ta tóki askótaa ta...” (168).

Muskitzen, haran berean, **Iruñetik** dugu EENEL-en arabera, eta Etxalekun **Iruñetik**. Guri Oskozko lehen informatzaileak **Iruñea** ‘Iruñea’, **Iruñaa** ‘Iruñera’, **Iruñen**, **Iruñetik**, **Iruñekoà** eman digu (169), bigarrenak **Iruñe** ‘Iruñea’, **Iruñea** ‘Iruñera’, **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñekuà** (170), hirugarrenak **Iruñe**, **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñekoa**, **iruñdarrà** (171). Muskitzen **Iruñea**, **Iruñerà**, **Iruñetik**, **Iruñean**, **Iruñekoà** (172) dugu, eta Goldarazten **Iruña** edo **iruñá**, **Iruñan** edo **iruñén**, **Iruñetik**, **Iruñerà**, **Iruñekuà**, **Iruñerri** ‘Iruñerria’ (173).

Ultzaman EENEL-en arabera **Iruñetik** dugu Gerendiainen, **Iruñetik** Arraitzen eta Auzan, eta **Iruñetik** Eltzaburun. Guk Auzan **Iruñe**, **Iruñen**, **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñkókua** (**Iruñkókua?**) (174) bildu genuen, eta Gerendiainen **Iruñe**, **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñekua** (175).

Odietan **Iruñera**, **Iruñetik** edo **Iruñetik**, **Iruñen**, **Iruñekua** ditugu Gendulainen (176), **Iruñea**, **Iruñetik**, **Iruñera**, **Iruñ(e)an**, **Iruñekua**, **iruñdarrà**, **Iruñe ingurúkua** edo **Iruñingurúkua** (177) Latasan, **Iruñe**, **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñan**, **Iruñekua** Gaskuen (178).

Anuen EENEL-en arabera **Iruñetik** dugu Etulain eta Aritzun. Txillardegik **Iruñen** ematen du Lantzerako (179). Guk **Iruña**, **Iruñerà**, **Iruñe-**

(168) EAEL, 191. zkia. Bokal-armonia badago.

(169) Oskotzen sortu arren aspaldi honetan Odietako Erripan bizi izan den Josefa Azpirozengandik (1921) bildu ditugu datuok. Bokal-armonia bada.

(170) Celestina Zarrantz (1935) izan da gure informatzailea.

(171) Miguel Zigandak (1908).

(172) Juan Mari Ibero (1951) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(173) Manuel Olaetxearendik (1926) jaso ditugu datuok.

(174) J. M.^a Berasainek (berrogeita bost bat urte zituen 1988an) eman zizkigun datuok.

(175) Rosa Oronoz (1925?) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(176) Mikaela Goldarazek (1929) eman dizkigu datu hauek. Ez du euskara menperatzen.

(177) Martín Elizondoren (1922) ahotik jaso ditugu datuok. Ez dakigu erabat fidagarriak diren. Bokal-armonia bada.

(178) Modesto Arzerengandik (1926?) bildu ditugu datuok. Bokal-armonia bada.

(179) *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia, 1984, 363.or.

fik, **Irúñan**, **Irúñekua** bildu dugu Burutainen (180), **Irúña** edo **Irúñe**, **Irúñerà** edo **Irúñarà**, **Irúñetik**, **Irúñan**, **Iruñékua** edo **Irúñekoà**, **Irúntièrra-koà** 'Iruñerrikoa' (181) Etulainen.

Esteribarren EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Inbuluzketan, **Iruñetik** Leranotzen, **Irúñetik** Iragin, **Irúñetik** edo **Iruñetik** Eugin. EAEL-ren arabera azken herri honetan **Iruñera** esaten dute:

“Yoan den asteartian yoan ginen **Iruñera** pillota partida ikustera ta si ziren pillotan...” (182).

Ilurdotzen, bailara berean, Koldo Artolak **Iruñe** (...gúzie), **Irúñe** (gúzie), **Irúñera**, **Iruñera**, **Irúñen**, **Irúñetik** biltzen ditu (183). Eugin guk **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñera**, eta **iruñetárrak** bildu genituen (184), eta Iragin **Irúñe**, **Irúñera**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **iruñdarràk**, **Irúñerriè** edo **Iruñerrie**, **iruñer-ritarràk** edo **iruñerritarràk** (185).

Erroibarren EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Aintzioan, eta **Irúñetik** Auritzen. Mezkitzen guk **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñekoàk** edo **Iruñekuak** bildu genuen (186). Gure informatzaileetako batek, gainera, **Irúña** eta **iruñà**, **Irúñatik**, **Irúñara**, **iruñàn** eman zigun (187). Lintzoainen **iruñà**, **irúña** eta **Iruñe** (?), **Irúñarà** edo **Irúñera**, **Irúñetik**, **Irúñàn**, **Irúñekoà**, **Irúñeko ingurue** (188) bildu dugu; Erron **Irúñeà** 'Iruñea', **Iruñera**, **Iruñetik**, **iruñárrak** (189), eta Aurizberrin **Irúñà**, **Irúñen**, **iruñtarràk**, **Iruñingurua** (190).

Artzibarren **Irúñetik** dugu Orotz-Betelun EENEL-en arabera (191). Arrietan Koldo Artolak **Irúñera** (192) bildu zuen.

(180) Bokal-armonia bada. Lucía Larramendi (1908) izan da gure informatzailea. Ez dakigu **Irúña** jatorra den herri honetan, baina Luciak behin eta berriz bere hizkeran “Pamplona” **Irúña** dela, eta ez **Irúñe**, errepikatu digu.

(181) Juanperitzeneko Antonio Mariñelarena (1915) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada. Oraingo honetan ere ez dago garbi **Irúña** jatorra den ala ez.

(182) 205. etnotestua. Bokal-armonia bada.

(183) “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)”, *FLV*, 60, 1992, 187-227. Behin **Irúñ(e)an** ematen du. Bokal-armonia bada.

(184) Hilario Seminario (60 bat urte 1988an) izan zen gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(185) Jesus Lintzoainen ahotik (60 bat urte zituen 1988an) jasotako datuak.

(186) Gure informatzaileak Juanita Agorreta eta Martín Urrutia (Ureta) izan ziren, biak adin handikoak.

(187) Daniel Erreak. Jaun hau Mezkitzen sortu zen orain hirurogeita hamar bat urte, baina hazi Zilbetin hazi zen. Zalantza handiak ditugu datuon fidagarritasunaz.

(188) Severino Torreak (1924) eman dizkigu datu hauek.

(189) Matias Bizkaik (70 urtez goiti zituen 1988an) eman zizkigun datuok.

(190) Jesus Urtsunengandik (70 urtez goiti zituen 1988an). Ez dugu uste oso datu fidagarriak direnik.

(191) Ez bide zegoen bokal-armoniarik (ikus A. Campionen *Orreaga*, Iruñea, 1880, 93-96.orr.).

Nafarroa Behereko Aiherran honako hau dugu:

“...horrék ikèrtu dú, izan dá **Irúñ(e)an**, eta lehénagóko... ba, istórian eta... ikértzen, heméngo... Bèltzuntzé, lehénagó, **Iruñeko** errégian azpíko zén, Beltzúntze,....” (193).

Aezkoarako Azkuek **Iruñeko**, **Iruñera**, **Iruñarako** ematen ditu (194). EENEL-en arabera **Iruñetik** dugu Abaurrepean, **Iruñetik** Or baitzetan, eta **Iruñetik** Hiriberrin. Garraldan guri lehen informatzaileak **Irúñerà**, **Irúñetik**, **iruñèn**, **Irúñekuà** eman digu (195), bigarrenak **Irúña** edo **Iruína**, **Iruñetik**, **Irúñará**, **Irúñarà**, **Iruñára** edo **Irúñerá**, **Irúñan** edo **Irúñen**, **Iruñátik** edo **Iruñetik**, **Irúñekoa** [irúñekóà] edo **Iruñekoa** [irúñekóà], **iruindarra** (196), eta hirugarrenak **Irúñe** edo **Irúña**, **Iruñetik**, **Iruñera**, **Irúñen**, **Iruñekoa** [irúñekóà], **iruindarra**, **Irúñeingúrua** (197). Arian lehen informatzaileak **Irúñe**, **Irúñera**, **Irúñeti**, **Irúñe(a)n**, **Iruñekua** edo **Irúñekuà** eman digu (198), eta bigarrenak **Irúñe**, **Irúñekuà**, **Irúñera**, **Iruñetik**, **Irúñen**, **iruindarrà** edo **iruindarra** (199). Orbaran **Irúñeà**, **Irúñera** edo **Iruñera**, **Irúñetik**, **Irúñe(a)n**, **Irúñekoa** (200) eman digute, eta Or baitzetan **Irúñe** edo **Irúñe**, **Irúñera** edo **Irúñerà**, **Iruñetik** (**Irúñetik**), **Irúñen**, **Irúñekua** (201). Hiriberrin **Irúñe** edo **Irúña**, **Iruñetik** edo **Irúñetik**, **Irúñerà** edo **Iruñera**, **Irúñean** [irúñéan], **Irúñekoà** edo **Iruñekoa** [irúñekóà], **Irúñekoàk**, **iruindarra** edo **iruindarrà** (202) bildu ditugu, Abaurrepean **Irúña**, **Iruñan**, **Irúñerà**, **Iruñerik** ‘Iruñetik’, **Irúñekoa** [irúñekóà] (203), eta Abaurregainean **Iruñeà**, **Iruñean**, **Iruñera**, **Iruñetik** eta **Irúñetik**, **iruindarràk** eta **Iruñerrià** (204).

Zaraitzun **Irúñarrik** ‘Iruñetik’ dugu Ihaurrietan EENEL-en arabera (205), eta Itzaltzun **iruñarrik**. Lehen herrian guk **Irúña**, **Irúñarà**, **Irúñarrik**,

(192) Ez dago bokal-armoniarik.

(193) EAEL, 252. zkia. Ez dago bokal-armoniaren aztarnarik.

(194) “Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoa mintzaera”, *Euskera*, 1927, 179-300. Eman baino gehiago “erabili” egiten ditu, aezkeraz idazten duenean. Euskalki hau hobekienik ezagutzen duen Iñaki Caminok jakinarazi digunez, Azkuek Aezkoarako ematen dituen datuak ez dira zeharo fidagarriak.

(195) Matias Iriartek (1914) eman dizkigu datuok.

(196) Angela Iriarte (1916) izan da gure informatzailea.

(197) M.^a Lina Lerindegi Pedroarenaren ahotik (1936) jaso ditugu datuok.

(198) Benito Retegik (1920).

(199) Maria Maisterrak (1917).

(200) Gure informatzailea Domingo Burusko (1920) izan da.

(201) Jose Ignacio Legazek (1956).

(202) Julian Arrese Urrutiaren ahotik (1908) lortutako datuak.

(203) Joaquín Arozarena (1912) izan da gure informatzailea. Ez du euskara menperatzen, eta dakiena Abaurregainean ikasi omen zuen.

(204) Segundo Arostegi, Maria Arozarena, Bittoriano Zelai, eta Emilia Bidondo izan ziren gure informatzaileak. 1988rako hirurogeita hamar urtez goiti zituzten denek. Aezkeraz ez dago bokal-armoniarik.

(205) 252. zkia, 322.or.

Iruñan eta **Iruñatarrak** (206) bildu genuen, eta Orontzen **iruñà**, **Iruñarik**, **Iruñára** edo **Iruñarà**, **Iruñan** eta **Iruñatarrak** (207). Espartzarako EAEL-k honako lekukotasun hauek ematen ditu:

“...géro bér(t)ze áinzpa bat badút -bízi báite (sic) **Iruñan**-, kárek emezór-tzi úrte ztuelarík, fán zen **Iruñara** zerbítzatzra, ta ken barátu ni(n)tzán ní”.

Pues kén barátu g(a)rá. égun fán zaidá...sémia **Iruñara**; élki txióxu... kála, ezkérreko... bésoan, búlto bat” (208).

Herri honetan guk **iruñà**, **Iruña**, **Iruñan** eta **Iruñarik** bildu genituen. Iruñean jaiok **Iruñárrak** (209) dira.

Uztarrozen EAEL-ren arabaera **Uruñara** dugu:

“Kóntu bát, amíntto bát... luzéxka: áldi batéz xoán zriá bí mázte bíájez, eta buèltan zrénian... eztakiár nóra: èzta ere **Uruñara**, Izábara, ez...” (210).

Izaban Koldo Artolak **Uriña**, **Uruñan** eta **Uruñako** bildu zituen (211).

Azkuek **Uriña**, **Uruña** eta **Uruñerri** ematen ditu erronkarierarako, baina ez du zehazten aldaera bakoitza zein herritakoa den (212). Mitxelenaren arabera **Uruña** dugu Uztarrozen, eta **Uriña** ibarreko gainerako herrietan (213). José Estornés Lasak **Uruñara**, **Uruñako** eta **Uruñáراك** erabiltzen ditu (214).

3. Ondorioak:

Mitxelenaren iritiz aldaerarik zaharrena nafar hiriburuan argia ikusi zuten hainbat idazlanen inprenta-oinean azaltzen den **Iruñea** dugu. **Iruñea**, **Iruñe** primarioarekin (hots, bokal-armoniari zor ez zaionarekin) batera, bizirik dago gutxienez aezkeraz, Artzibarko hegoaldeko goi-nafarreraz (hemengo euskara bizirik dagoen neurrian. Bailara honetako lekukotasunen oinarrian dagoena **Iruñea** nahiz **Iruñe** izan daiteke), eta Basaburu

(206) Xalbador Karrika eta Eulalia Palazonengandik hartutako datuak. Lehena laurogeita hamar bat urte izanen ditu, eta bigarrena urte pare bat duela hil zen. Elkarrizketa egin genionean hirurogeita hamabost bat urte zituen.

(207) Sebero Azkoitirengandik jasotako datuak. 1988an laurogei urtez goiti zituen.

(208) EAEL, 272. zkia.

(209) Jacinto Ramírez eta Dionisia Garaterengandik hartutako datuak. Lehenak laurogei ta hiru urte ditu orain, eta bigarrena duela gutxi zendu zen, laurogeita hamar bat urte zituela.

(210) 291. zkia.

(211) “Erronkariko uskararen azken hatsak... eino’re!!!”, *FLV*, 25, 1977, 75-107.

(212) “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera*, 1931, 207-406.

(213) “Hispánico antiguo y vasco”.

(214) *Erronkari’ko uskara*, Auñamendi, Donostia, 1968, 136 eta 145.orr.

Nagusi; Malerreka eta Bortziritako iparraldeko goi-nafarreraz. EAEL-k Elduain (Gipuzkoa)-rako ematen dituen datuetatik ere oinarritzko forma **Iruñea** dela ondorioztatzen da.

Gure iritziz hiriburutik oso hurbil dagoen Elkanon sorturikako Joaquín Lizarraga idazlari euskaldunak **Iruñeko** eta **Iruñean** erabiltzeak garrantzi handia dauka, ezbairik gabe autore honen hizkerak hiriburukoaren irudikoa izan behar baitzuen. *Anales del Reino de Navarra*-ren egilea den Moret iruindar euskaldunak ere **Iruñea** ematen du hiriburuaren euskarazko izentzat, baina honen aldamenean **Iruña** eta **Irunia** ere aipatzen ditu (215), eta beraz autore honen lekukotasunak izan lezakeen pisua guztia galtzen du.

Gaurregun herri bakoitzean ibiltzen den aldaeraren etorkia zehazteko orduan ezinbestekoa da bertan bokal-armoniarik baden ala ez den jakitea, zeren leku frankotako **Iruñe**-ren azpian ***Iruña** izan baitezakegu, aldaketa ezagun horren bitartez bukaerako **-a** > **-e** gertatu delarik, **ukatu** > **uketu**, **ikatza** > **iketza**-n bezalaxe.

Erreterriako hizkuntzalariaren arabera, ekialdeko (Zaraitzuko eta Erronkariko) **Iruña**, **Uruña**, **Uriña** aldaerak lehenagoko ***Iruñea** batetik atera dira, sabaiko kontsonanteak ondoko bokal ez silabagilea irentsi eta gero. Bilakaera, beraz, hau izan da: ***Iruñea(n)** [irúɲɛa(n)], ***Iruñia(n)** [irúɲja(n)] > **Iruña(n)**, **Uruña(n)**, **Uriña(n)**. Txillardegiren ustez (216) **Iruñean** > **Iruñan** pausoa **itxean** > **ítxjan** > **ítxan** ‘etxean’-en dugunaren antzekoa da.

Hau berau gertatu bide da Nafarroako beste hainbat tokitan. Haue-tan analogiaz **Iruñatik**, **Iruñara**... eta beste sortu dirateke. **Iruña** sinpletutik bokal-armonia dagoen herrietan **Iruñe** atera izanen da, eta hemendik **Iruñen**, **Iruñetik**...

Absolutuan **Iruña** baina gainerako toki-kasuetan **Iruñetik**, **Iruñera**... (217) eta abar dugun herrietan sabaiko kontsonanteak bakarrik lehen kasuan (absolutuan) irentsi izanen du bokal ez silabagilea; gainontzeko kasuetan jatorrizko **-e**-k bere horretan iraun izanen du, hauetan testuingurua ezberdina izanik bokalak balio silabagile osoa atxiki baitu. Edozein moduz, honelakoetan **Iruñen** bide dugu inesiboan (hau eman omen zioten Iraizozko Polikarpori Beintza-Labaienen. Honelakoetan **Iruñan** ere ager daiteke: cf. Anue), ez **Iruñean**, eta beraz garbi dago azken forma hau (**Iruñean**) dugun herrietan **Iruñea** ibili izan dela edo ibiltzen dela, ez **Iruñe** edo **Iruña**, hauen inesiboa esan bezala **Iruñen** edo **Iruñan** izaten

(215) Ikus Jimeno Juríoren “Pamplona y sus nombres”, *FLV*, 57, 1991, 55-76.

(216) Ikus *Euskal azentuaz*, 357.or.

(217) Saldiasen Iraizozko Polikarporen arabera. Iturengo **Iruñia** Saldiasiko **Iruña**-tik hurbil dago oso, baina halaz ere lehen herrian **Iruñian** dugu, ez **Iruñen**.

denez gero (218). Guztiarekin, hemen ere badago salbuespena, hain zuzen ere geronek Aezkoako Hiriberrin bildu duguna (219). Kasu hau, dena den, bakarra da, eta gainontzeko guztietan **Iruñe** primario nahiz sekundarioa badugu, inesiboan **Iruñen** daukagu.

Bokal ez silabagile bat aurreko sabaiko kontsonantez beretua izatea ezaguna da gaztelaniaz eta Nafarroako erromantzez (cf. viña < vinēa), eta horregatik ez da harritzeko eskualde honetako erdaraz **Iruña** erabili izana (aldaera hau, gainera, herri bateko baino gehiagotako euskaraz bizirik dago, ikusi denez), ez eta latinez edo erromantzez idatzitako Erdi Aroko agirietan ditugun lekukotasunen azpian aldaera hori (**Iruña**) ediretea.

Elkartuetan **Iruñ-**, **Iruin-**, e **Irun-** (**Iruñbidea**, **Irunbidea**, **Iruinportillua**...) aurkitzea erabat normala da (220), lehen osagaiak hiru silaba edo gehiago dituen azken bokala, zeinahi ere den, galtzen denez gero, sarri askotan kontsonante aitzineko ñ-ren desabaikaltzea gauzatzen dela (cf. **Usuñeta** baina **Usunbiribila** Leatxen (221)), batzutan **-n-** eta bestetan **-in-** atereaz (cf. Abaurregaineko **Iruñea** > **Iruinea** desbustidura).

Laburtuz zera esan daiteke, **Iruña** (eta **Iruñe**, bokal- armoniaz) **Iruñea**-tik abiatuta aise azal daitekeen bitartean, alderantzizkoa ez dela gertatzen (222), eta beraz azken hau dela jatorrizko forma. Beste aldetik, **Iruñe(a)** (223), Iraizozko Polikarpok uste zuenaz bestalde (224), oraindik ere bizirik dago eta aski zabaldua, eta garai batez Iruñe inguruan ere erabilia izan zen, eta agian hiriburuan berean ere bai, nahiz hau seguritatez ezin baieztatu daitekeen. **Iruñea** da, gainera, euskal Akademiak proposatzen duen aldaera.

Iruñea-ren etimologiaz:

Koldo Mitxelena-ren iritziz autore klasikoek (Estrabonek, Pliniok) erresuma zaharreko hiriburuari ematen dioten izenean (**Pompaelo. Pom-**

(218) Jesús María Zubillagak bestela uste du. Ikus "Observaciones acerca del nombre de Pamplona en vascuence", *FLV*, 40, 1982, 485-492.orr.

(219) Ikus Hiriberriko datuak. Arian, gainera, informatzaile batek **Iruñen** eta **Iruñean**-en arteko aldaera eman digu, hots, bata ala bestea dugun garbi bereizterik ez dagoena.

(220) Ikus AV, 26.or.

(221) NEEATB.

(222) Lehenik zera pentsatu behar genuke, **Iruña**-ren azken bokala artikulua dela, zela izen arrunten antzera deklinatzen zela, eta bigarrenik **Iruñean** inesibotik **Iruñea** atera zela. Hau da Iraizozko Polikarporen iritzia (op. cit., 429.or.). Guk ez dugu uste hala gertatu den, baina edozein moduz toponimia txikian **Aranean** - n > **Aranea**, **Zabalea** - n > **Zabalea**-ren modukoak ugariak dira.

(223) Hots, **Iruñe** primarioa eta **Iruñea**.

(224) «Pero sea o no válida esa explicación, es que en Navarra se ha dicho y se dice aún el nominativo *Iruñea*? No me parece.», "Nombre vasco...", 430.or. Aitzinxeago ere

pelo epigrafeetan (225)) Pompeyo jeneral erromatarren izena eta euskaraz Nafarroako hiriburua izendatzeko erabili izan den izena bide ditugu (Estrabonen arabera **Pompaelo Pompeyópolis**-en adierakidea da), nahiz azken honek itxuraldaketa batzuk jasan behar izan zituen, usadio latinoei egokitze aldera (226). Autore honen arabera *-ilone* forma latinao modu batera edo bestera euskarazko **Iruñea**-ri dagokio (227).

Orain urte batzuk aurkitu zen **olcairun** txanpon-inskripzioan A. Tovarren aburuz (228) **olca** ‘ongi landutako alorra’ zeltiarra eta nafar hiriburuaren izena dugu, seguraski ‘olkako Iruñea’ adiera duen elkartu baten aurrean gaudelarik. Autore honen arabera **Irun**, **Iruña** aitzineko **Ilum**-batetik atera dira, euskaraz arrunta den **l > r** aldakuntzaz. **Pompaelo** aldaera ofizialean nafar hiriburuaren aldaera kontserbatzaileagoa izanen genuke, aipatu txanpon-inskripzioko **-irun** herrikoiairen parean.

Mitxelenaeren arabera, konplexua dirudien **Iruñea**-ren lehen osagaia **ili-** izan liteke, hots, ekialdeko euskalkietan gorde den eta Penintsulako eta Frantziako hegoaldeko zenbait hiri-izenetan aurkitzen dugun (**h**)iri-‘herria, hiria, ziutatea’-ren aitzindaria. **Iruñea** erromatarren garaian garrantziko izan zen **Iruña** arabarrarekin identifikatu behar genuke, bai eta, halaber, **Irunberri**-ren lehen osagaiarekin (< **Iruñe** + **berri**, euskaraz ohizkoa den lehen osagaiko azken bokalaren erortzeaz, eta kontsonantearen desbustiduraz. Cf. Plinioren **Ilu(m)beritani**). **Irun** ere **Iruñea**-ren aldaki soila besterik ez litzateke (229).

Irakasle errenteriarrek dienez, **Iruñea** ‘hiria’ hutsa baino zerbait gehiago litzateke, baina ez da zeharo segurua azken osagai hori **on** izenondoa den (230).

berdin: «Y en la actualidad no recuerdo haber oído *Iruñea* en los muchos pueblos de Navarra en que he residido o que me ha tocado visitar», id.

(225) Carmen Castillo, “La onomástica en las inscripciones romanas de Navarra”, in *Segundo Congreso de historia de Navarra. 1990, PV*, 14. eraskina (1993), 117-134.orr. Laster argitara atera beharreko lana da hau.

(226) “Hispanico antiguo y vasco”.

(227) “La langue ibère”, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril, 1985, 341-356.orr. Mitxelenaeren arabera **Iru-** lehenagoko *il + Bokal-etik heldu da, ez *iL + bokal-etik, bestela euskarazko **-r-** azaltzerik ez bailegoko (cf. hiri, Irun, Iruña, Irunberri). **Iruñea**-ren azken **-a** hori artikulua da, berria beraz (toponimo euskaldunetan XI. menderako azaltzen bada ere), inguruko hizkuntzei jarraikiz jaioa.

(228) “El nombre de Pamplona”, *FLV*, 25, 1977, 5-8. Ikus, gainera, Javier de Hozen “El euskera y las lenguas vecinas antes de la romanización”, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1982, 27-56.orr.

(229) FHV, 500.or.

(230) FHV-n ideia hau onartzen duela irudi du, aurreko lanen batean (“Hispanico...”) ia arbuatzen zuela esan daitekeen arren. FHV-n honela dio: «...también tiene *-e* (como Iruñe-) el nombre de la ‘mano derecha’, compuesto de *on* ‘bueno’» (501.or.); «Las variantes de *eskui(n)*, y acaso los del ‘abuelo’, plantean el mismo problema que hemos visto a propósito de *Iruñea*, en composición *Irun-*, *Iruin-*: *Iruñi aldean*, en ms. de Lizarraga,

Alfonso Irigoyenen iritziz Mitxelenaren hipotesia onartzen bada, **Pamplona** izenaren oinarriako *Pompe[ij]- + *ilon 'Pompeyoren hiria'-ren antzeko zerbait eman liteke. Honela dio autore honek:

«Si se aceptara esta hipótesis (Mitxelenarena) se me ocurriría señalar que nos encontraríamos ante algo parecido a *Pompe[ij]- + *ilon, 'ciudad de Pompeyo', declinado en latín con genitivo en *-onis*, sufriendo el nominativo, por constituir un tema en nasal, un alargamiento compensatorio de la vocal de la última sílaba a causa de la caída de dicha nasal final. La formación del topónimo sería semejante al de *Zenauri* < *Zean* + *uri*, 'villa de Ceán'» (231).

Lanean erabilitako laburduren azalpena:

ASJU: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*.

AV: *Apellidos Vascos*, K. Mitxelena, Txertoa, Donostia, 1973.

EAEL: *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa*, bi ale, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia, 1983, 1990.

EIG-VII: *Euskal idazlan guztiak-VII*, Koldo Mitxelena, Euskal editoreen elkarte, Donostia, 1988.

EENEL: *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, A. M.^a Echaide, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1987.

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.

Id: idem.

NEEATB: *Nafarroako Ekierdialdeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, P. Salaberri, argitara gabeko doktorego-tesia.

PT: *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.

PV: *Principe de Viana*.

RIEV: *Revista internacional de estudios vascos*.

SHLV: *Sobre historia de la lengua vasca*, bi ale, K. Mitxelena, Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Donostia, 1988.

UGDEN: *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, A. Irigaray, Ediciones y libros, Iruñea, 1974.

aecz. sal. *iru(i)ndar* 'pamplonés', *Iruynberri*, 1351, *el prado de Yruinllarrea*, 1408, en documentos del ayuntamiento de Pamplona. Su vocal final, *-e, no parece estar etimológicamente justificada. Habrá, pues, que admitir que los hechos de apócope, apuntados en 21.5, a, podían conllevar, como contrapartida, otros de paragoge» (509).

Etimología, hortaz, **hiri** + **on** + **-e** (paragogikoa) litzateke. Cf. Lekhuine (Bonloc) < *leku + on + -e.

(231) "Replicas de topónimos vascos en América y Filipinas (origen y etimología)", *De re philologica linguae vasconicae-IV*, Bilbo, 1992, 133-167.orr.